



HAUSNARKETA TESTUA

Metodologiak eta jardunbide artistikoak partekatzeak gauzetara eta geure burura hurbiltzeko moduak zein harremanetan jartzeko moduak dakartza berekin. *Gonbidapena / Invitación* egonaldian zehar, ukitzeko, begiratzeko, entzuteko, egiteko, idazteko eta esateko modu zehatzen bidezko sentsibilitateen transferentzia horrekin esperimentatzea erabaki dugu proiektuaren bost kideek. Une bakoitzean, bakoitzaren sormen-unibertsoa zeharkatzen zuten interesez abiatuta gauzatu da hori beti.

Topaketa hauen hasieratik gure desira izan da hedapen metodologikoa aktibatzea, ardatz antolatzaile batez abiatuta jardunbide partikularrak gainjartzea eta gurutzatzea, kolektiboarekin egiteko modu espezifikoa transferitzean edo esperimentatzean oinarritzen zena. Zentzu horretan, bakoitzak taldeari proposatutako jardunbide artistikoek zeuden gorputzak biltzea bultzada komun gisa finkatu nahi izan dugu, hau da, gurutzaketa metodologikoa beti 'gorputzez gorputz' gauzatzea; aditzetan kokatzeko: masajea eman, entzun, irakurri, esan, ibili, eraman, sendatu, korritu, gerturatu, aldendu, lo egin, jan. Hortaz, bakoitzak garatu dituen edo praktikatu behar dituen egiteko modu sentikorrek transferitzeko ariketan interes berezia dugu. Beraz, *Gonbidapena / Invitación* egonaldiak aukera eman digu ikaskuntza metodologikoko gune bat aktibatzeke taldeko jardunbideen transferentziak doitzearen bidez. *Kide bakoitzak dituen egiteko modu artistikoak ezagutzeko eta eraldatzeko biltzen den taldea.*

Guretzat eremu esperimental bat ezartzeko eta, orokorrean, esperientzia aurretiko emaitzen arabera ordenatzen diren joeretan ez erortzeko orduan, sortzaileen imaginario kolektiboetan oinarritu gara, zeinen *background* anitzeei -kolektiboa denera egokituta daudenei- esker gure jarduetan eremu zabala ireki den. *Poltsa bat, non aukera genuen bakoitzak ekartzen zituen gauzak jartzeko eta zenbait modutan konbinatzeko.*

WIKIRIKI 2019-2020 #wikitokiegonaldiak

GONBIDAPENA / INVITACIÓN

Garrantzitsua da lurralde hau marraztea -zeinean hasieratik kokatu nahi izan garen-sortu diren jardunbideak ulertzeko, gure baitan metodologiak partekatzea izan daitekeenaren eta haietaz hitz egiten dugunean esan nahi dugunaren ulermen berriak sortu dituztenak.

Garrantzitsua gauzatzen zaigu ere kontuan hartzea 2020. urtea erronka bat izaten ari dela eta garatu ditugun proposamenetako askok beste ingerada batzuk irabazi dituztela, aldaketetara ireki direla eta bete batzuekin batera eraldatu direla. Taldeka aritzea Covid-19ren testuinguruan erronka bat da, baita militantzia modua ere, zeinean espazio presentzialen, afektiboen eta partekatuen jarraitasunaren alde egiteko dugun, gorputzetik, koreografiatik, biologiatik, geografiatik eta ezezaguna denatik pentsatzen jarrai dezagun.